

# FABRIKAZIO MEKANIKOA

Goi Mailako heziketa zikloa  
**Metal-Eraikuntzak**

Centro Integrado de F.P. / L.H. Ikastetxe Integratua  
Portal de Lasarte, 23 • 01007 • Vitoria-Gasteiz • Tel. 945 000 440  
[www.mendizabala.com](http://www.mendizabala.com)

## Zertarako prestatzen nau?

- Beharrezko kalkuluak egin eta proba-planak ezarri, metalezko eraikuntzen produktuak diseinatu eta dimentsionatzeko
- Talde eta eraikuntza planoetan jasotako informazio teknikoa oinarri hartuta, metalezko eraikuntzak fabrikatu, muntatu eta mantentzeko operazioak definitzeko.
- Metalezko eraikuntzetan erabilitako zenbakizko kontrolko makinak, roboten eta manipulatuzaileen programazioa eta doitzea ezarritako eskakizunekin bat datorrela gainbegiratzeko.
- Nire arloko baliabideen mantentze-lanen kudeaketa, lan-kargen eta mantentze-lanen behararen arabera planifikatu, programatu eta betetzen direla egiaztatzeko.

## Zer ikasiko dut?

- Galdaragintzako produktuak, metalezko egiturak eta hoditeria-industriako instalazioak diseinatzea eta horien ekoizpena planifikatzea, programatzea eta kontrolatzea, kudeaketa informatizatuko teknikak eta tresnak erabiliz.
- Diseinatutako produktuen fabrikaziorako eta mantenurako beharrezko den dokumentazio teknikoa eguneratua mantentzea, antolatzea eta lantzea.
- Eraikuntza metalikoen soldatze, prestatze, doitze eta muntatze-lanak egitea.

## Non egin ahal izango dut lan?

Biltegi handiak, galdaragintza lodia eta hoditeria-industria fabrikatzen dituzten industrietan, tailer mekanikoetan, karrozeria, atoiak eta iraulkiak eraikitzeko industrietan, itsasontzien eraikitze- eta konpontze-industrietan, instalazio petrokimikoetan, garraio-materialen industrietan zein metalezko eraikuntzen muntaia eta konponketa industrietan, metalezko eraikuntzen ekoizpenaren esparruan.

Industria-sektoreak: Ontzizintza, petrokimika enpresak, meatzaritza, lantegiak, arotzeria metalikoko tailerrak, industria metalmekanikoa...

## Prestakuntza plana

Iraupena: 2.000 ordu (2 ikasturte, hiru hileko bat enpresa baten praktikak egiteko barne).

Sartzeko baldintzak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu-titulua.
- Sarrera-proba bat egitea.

\* Lanbide Heziketa Duala egiteko aukera izango duzu, horrela lana eta ikasketak aldi berean egin ahal izango dituzu.

MODULUAK	1. IKASTURTEA ORDUAK ASTEAN Iraila- ekaina	2. IKASTURTEA ORDUAK ASTEAN Iraila- ekaina
Fabrikazio mekanikoko irudikapen grafikoa	5	
Metal-eraikuntzen prozesuen definizioa	5	
Metal-eraikuntzen mekanizazio, ebaketa eta konformazio prozesuak	6	
Metal-eraikuntzen lotura eta muntaia prozesuak	6	
Kalitatearen kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa	5	
Laneko prestakuntza eta orientabidea	3	
Metal-eraikuntzen diseinua		14
Fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa		5
Produkzioaren programazioa		6
Ingeles teknikoa		2
Enpresa eta ekimen sortzailea		3
Metal-Eraikuntzen proiektua		50 ordu guztiak, martxotik ekainera
Lantokiko prestakuntza		360

\* Bi urtean prestatuko zaitugu; arau berriei eta gertatzen ari diren teknologi aldaketei egokitu eta azken teknologia duten ekipoa eta tresneria erabilia. Gainera, azken hiru hilekoan praktikak egingo dituzu sektoreko enpresetan, institututik koordinatuta eta lanpostua aurkitzea helburu duela.